

Balioa baliogabetu

Armadun izateko eskubidea, eta zoriontsu izatekoa, Amerikako Estatu Batuetako (AEB) Konstituzioaren ituak dira. Gurean, arma bat daukan jende kopurua –lizentziarekin eta lizentziarik gabe– askoz ere handiagoa dela, zorionsua den jende zenbakia baino, ziur baino zurrago nago. Euskal Herrian gehiago gara ehiztari sonatuak txori erresinulak baino. Baina badago politikaren munduan, ene ustez, AEBetako Konstituzioak agintzen dituen bi eskubide horiek baino gauza oraindik ere lerdoagorik, eta da egungo politikaren dimentsioari gaur ere politikaren dimentsio esaten jarraitzea. Hauteskundeak aipatu zituen Anak, eta nik burua astindu nuen, ideia beltz batzuk uxatu nahirik bezala, baina lehengoari ekin nion. Idatzi ala ez idatzi egon nintzen; azkenean, gaurko sistema politikoaren egitura funtzionalari buruz dudan iritzi ezkorra zertan oinarritzen den esango dut: esperientzia pertsonalaz aparte ere, betidanik iruditu izan zait harrigarri alderdien herrietako zerrenda-gai antologikoetan beren izena ematea onartzen dutenen irribarre gozoaren ziurtasuna, ongi sentitzen direla sentitzen diren bezala, eta komunitate politikoaren parte izateak sentiberatasuna areagotu diela. Gauza bera gertatzen zait neuri ere alkoholik gabeko zerbezaz mozkortzen naizenean. Alderdi politikoek beste edozeinek bota edo galdu egingo zituen arrazoibideak arduraz gordetzen dituzte, artista arruntek bezala, izan ere, erabat ziur baitaude arrazoibide horiek, objektiboki deus balio ez dutelarik ere, jenio talde baten emaitza izaki, noizbait izango duten garrantziaz. Ez da beti horrela, noski. Baina, bai, ia-ia beti. *Eromen demokratiko* honetan, duela gutxi ikusi dugu, lotsa-

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

gabekeriaren markak hautsi aldera, gure etorkizun petrala negoziatzen dutenek zer nolako orain pribilegiatuak bizi dituzten. Ez dut nik ideiarik ere beste ordezkatzesistema politiko bat proposatzeko, baina txarrenen artean txarrena ez dena erabaki behar hori ikaragarri tristea iruditzen zait. Ikaragarri gaizki. Eta uste dut badugula zertan kezkatu. Eta ardura zaigu. Gure politikariak ez baitira politika ulertzen trebeak. Eta herriaren ordezkaritza utzi nahi diegula esatean ez gaituzte ulertzen. Nik uste dut, gaur egun, politika gaizkien egiten duten herrien artean dagoela gurea. Metafora politikoa da, noski, baina ez dakit jasoko ote duten. Eta nik bezala, askok eta askok uste dute gauza bera. Baina deus egin gabe jarraitzen dugu arazo erromantiko horren aurrean. Etsita. Eta osagai nagusienarik gabe geratzen ari gara politikan: esperantza. Eta beldurraz betetzen ari gara esperantzaren lekua. Zorionez, Beñatek ederki erakutsi zigun bezala, ongi menderatzen dugun gaia da futbola. Eta Eguraldia 24: itsasoko uraren tenperatura. Eta gastronomia, sukaldari gazteak egiten ari diren garrantzizko lana. Euskal poesiak planktonaren espezie baten desagertzeak baino interes gutxiago du. Politikari arruntek, ene ustez, norbanakoaren balioa baliogabetu egiten dute. Politikari arruntek asko hitz egiten dute, baina ez dute ezer esaten. Nire hitza da nire etorkizuna, ez haiena. Gehiago naiz, sistema politiko bat baino gehiago naiz. Ez dago nigan agintzerik duen inolako gauzarik, pertsonarik, estaturik. Ni naitzelako nire bizitzarengan agintea duen bakarra. Eta ahalmen hori da nik orain aukeratzeko dudana, neure burua gogo bizi nabarmenez libre eta kirol karnetik atera gabe bizitzeko. ■

«
 Ez dut nik ideiarik ere beste
 ordezkatzesistema politiko bat proposatzeko,
 baina txarrenen artean txarrena ez dena
 erabaki behar hori ikaragarri tristea iruditzen
 zait. Ikaragarri gaizki. Eta uste dut
 badugula zertan kezkatu. »